

**Hospitalitatean herriz ere atera nahi dugu ibiltzera, honako hau adierazteko: batetik, Europar Batasunak bere sorrera-balioekiko koherentziaz eta leialtasunez joka dezala nahi dugu, eta bestetik, migratzera behartutako pertsonen harreran eta integrazioan baldintza duinak bermatzeko konpromisoa har dezala. EBk jatorriko herrialdeekin lankidetzan aritzea eta Garapenerako Nazioarteko Laguntzan sinestea nahi dugu. Eskubidezko Europa bat izan dadila.**

**Zure botoaren indarrak, babesaren, askatasunaren, duintasunaren eta elkartasunaren balioetan oinarritutako Europa sortzen lagundu dezakezu. Zurea da boterea, #ThePowerofVote, Europa inklusiboagoa eta abegitsuagoa eraikitzeko.**

## BABESA

**Europako Parlamentuak eginkizun garrantzitsua izan dezake, Europar Batasunak bere babes-balioak bete, eta aterpe eman dezan. Honako hau eskatzen dugu:**

- **Mediterraneoko** erreskate-operazioak mantentzea: bizitzak salbatzea oinarrizko betebeharrak morala eta legala da.
- **Europar Batasunean** asiloa eskatzeko eskubidea bermatzea, bai mugan, bai lurraldean.
- **Familiak** elkartzeko erraztasunak ematea.
- **Estatu** kideak birkokatze-zifrak handitzera bultzatzea.
- **Nazioartean** lekuz aldatzeko bide seguruak eta legezkoak gehitzea.
- **Europar Batasunaren** lehorreko eta itsasoko mugetan itzularazte sumarioak geldiaraztea.

## ASKATASUNA

**Europako Parlamentuak eginkizun garrantzitsua izan dezake, Europar Batasunak bere balioak bete, eta atxilotu ordez beste bide batzuk erabili daitezken. Honako hau eskatzen dugu:**

- **Atxiloketa-zentroetan** barneratutako migratzaile eta asilo-eskatzaile gehienek inoiz deliturik egin ez dutela onartzea.
- **Arauz** kanpo dauden migratzaileen atxiloketa murriztea, eta azken baliabide gisa erabiltzea.
- **Barneratzea** migratzaileen osasun fisiko eta mentalerako kaltegarria dela onartzea.
- **Barneratu** ordezko aukerak garatzeko inbertitzea.
- **EBko** herrialde guztietan, migratzaile adingabeen eta asilo-eskatzaileen barneratzea debekatzea.

[www.hospitalidad.es/caminosdehospitalidad/euskera](http://www.hospitalidad.es/caminosdehospitalidad/euskera)

**Egin bat bidearekin! #ThePowerofVote**

## DUINTASUNA

**Europako Parlamentuak eginkizun garrantzitsua bete dezake, Europar Batasunak bermatu egin dezan Europara babes bila datorren orenen harrera baldintza duinetan egingo dela. Honako hau eskatzen dugu:**

- **Behar adina** harrera-toki ezartzea. Asilo-eskatzaileak kale gorrian eta pobrezian ez geratzeko lan egitea.
- **Harrera-baldintza** duinak izatea: asilo-eskatzaileak gizarteratzeko lehenengo urratsa da.
- **Ordezko** harrera-sistemak diseinatzea, administrazio publikoen eta gizarte zibilaren antolamendua eta parte hartzea errazteko.
- **Integrazioa sustatzea** askotariko kulturak izatea aberasgarria dela onartzen eta aintzat hartzen duen prozesu bat da. Tokian tokiko komunitateekin lan egitea jarrera abegitsuak sustatzeko.

## ELKARTASUNA eta BERDINTASUNA

**Europako Parlamentuak eginkizun garrantzitsua izan dezake, Europar Batasunak bere balioak bete, eta guztiok barnean hartzeko egin dezan lan. Honako hau eskatzen dugu:**

- **Integrazio-politika** aktiboak. Migratzaileen integrazioari heltzea, gizarteratze-politika zabalagoetan.
- **Ekimen** soziokomunitarioetan inbertitzea eta sinesmen eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzea; baita erakunde sozial eta instituzioen artekoa ere.
- **Hizkuntzaren** eta lanaren arloko prestakuntza lehenestea, eta prestakuntza akademikoa baliozkotzea.
- **Enplegua** lortzeko oztopoak kentzea.
- **European** dauden jardunbide egokiak identifikatu eta ezagutaraztea.

## LANKIDETZA

**Europako Parlamentuak eginkizun garrantzitsua bete dezake migrazioen gaiari ekiteko estrategia gisa nazioarteko lankidetzaren eta elkarrizketaren alde egiten duen EB bat eratzeke. Honako hau eskatzen dugu:**

- **Migrazio- eta babes-itun** globalak ezarri eta garatzea, European nahiz estatuetan lege eta politika koherente eta eraginkorrak ezarriz.
- **European eta Espainian**, garapenerako nazioarteko lankidetzaren indartsua izan dadila, eta pobrezia desagerrarazteko eta Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko xedek bete ditzala.
- **Legealdi** honetan Espainiako Errenta Nazionalaren % 0,7 bideratzea garapenerako laguntzara. Garapenerako laguntzaren % 10 bideratzea laguntza humanitariora.
- **Migratzaile**, errefuxiatu eta lekualdatu adingabeak hezkuntza jasotzeko aukera dutela bermatzea.
- **Garapenerako** laguntzaren % 10 bideratzea garapen jasangarrira eta herritartasun globalera, komunitate globaleko kide, giza duintasunarekiko konpromisoa eta abegi-kultura indartzeko.
- **Herrialde** mugakideekin migrazioaren arloan hitzartutako lankidetzaren akordioek giza eskubideak errespetatzen dituztela bermatzea.

10/ CAMINOS DE HOSPITALIDAD

HOSPITALIDAD.ES

Jesuitas social

JRS

SJM servicio jesuita a migrantes

ALBOAN

entreculturas ONG JESUITA PARA LA EDUCACIÓN Y EL DESARROLLO

FUNDACIÓN HOGAR DE SAN JESÚ 1942-2017

The power of vote EU